

URA MUGIMENDUAN

IKATZA

PETROLIOA

HOSTOAK

HAIZEA

EGUZKIA

URANIO

EGURRA

1. Materia da...

- ☐ ... Lurra eratzen duen (bolumena du) eta bertan espazioa betetzen duen (masa du) guztia.
- ☐ ... unibertsoa eratzen duen (masa du) eta bertan espazio bat betetzen duen (bolumena du) guztia.
- ☐ ... unibertsoa eratzen duen (bolumena du) eta bertan espazioa betetzen duen (masa du) guztia.

2. Materia da...

- ☐ ... hiru egoeratan agertzen da: solidoa, likidoa eta gasa.
- ☐ ... egoera berean dago beti.
- ☐ ... hiru egoeratan agertzen da: solidoa, likidoa eta plasma.

3. Materiaren propietate orokorrak...

- ☐ ... masa (objektu batek duen materia-kantitatea) eta bolumena (objektu batek betetzen duen espazio-kantitatea) dira.
- ☐ ... masa (objektu batek betetzen duen espazio-kantitatea), bolumena (objektu batek duen materia-kantitatea) eta dentsitatea (masaren eta bolumenaren arteko erlazioa) dira.
- ☐ ... masa (objektu batek betetzen duen espazio-kantitatea) eta bolumena (objektu batek duen materia-kantitatea) dira.

4. Masa baskulen eta balantzen bidez neurtzen da:

- ☐ Kilogramotan, metro kubikotan, mililitrotan...
- ☐ Kilogramotan, gramotan, zentigramotan...
- ☐ Kilogramotan, gramotan, litrotan...

5. Dentsitatea...

Materiaren propietate espezifiko bat da, eta

- ☐ objektu batek betetzen duen bolumena bere masarekin erlazionatzen du.

Materiaren propietate orokor bat da, eta objektu

- ☐ baten masa objektu horrek betetzen duen bolumenarekin erlazionatzen du.

Materiaren propietate espezifiko bat da, eta

- ☐ objektu baten masa objektu horrek betetzen duen bolumenarekin erlazionatzen du.

6. Substantziak, hori osatzen duten materia-moten arabera, horrela sailkatzen dira:

- ☐ Substantzia solidoak, likidoak eta gasak.
- ☐ Substantzia puruak eta nahasteak.
- ☐ Nahasteak eta substantzia osatuak.

7. Granittoa, nahaste mota...

- ☐ ... homogenea da, osatzen duten osagaiak begi-kolpe batez bereiz daitezkeelako.
- ☐ ... heterogeneoa da, osatzen duten osagaiak begi-kolpe batez bereiz daitezkeelako.
- ☐ ... homogenea da, osatzen duten osagaiak ez direlako begi-kolpe batez bereizten.

8. Hurrengo materialetatik, zein dira naturalak?

- ☐ Egurra, lihoa, ikatza eta petrolioa.
- ☐ Beira, plastikoa eta ehun sintetikoak.
- ☐ Altzairu herdoilgaitza, ontziak eta gasolina.

9. Hurrengo materialetatik, zein lortzen dira funtsean petroliotik?

- ☐ Plastikoa eta ehun sintetikoak.
- ☐ Beira eta altzairu herdoilgaitza.
- ☐ Beira eta plastikoa.

10. Zer egingo zenuke energia aurrezteko?

- ☐ Ahal den guztietan argi artifiziala erabili, naturala erabili beharrean.
- ☐ Berogailua piztuta dagoenean leihoak ireki.
- ☐ Dutxatu bainatu beharrean.